

<p>4.2. HERRIKO MUSIKA TALDEEI ZEIN BAKARLARIEI GRABAZIOAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA.</p>	<p>4.2. CONVOCATORIA PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES DESTINADAS A GRUPOS MUSICALES O SOLISTAS LOCALES PARA LA REALIZACIÓN DE GRABACIONES</p>
<p>1. Xedea.</p>	<p>1. Objeto.</p>
<p>Deialdi honen xedea da herriko musikaren arte produkzioa sustatzea xede duten laguntzak arautzea, 2025eko abenduaren 1etik 2026ko azaroaren 30era bitartean egindako disko edo bideoklipen grabazio edota edizio kostuaren zati bat diruz laguntzeko.</p>	<p>El objeto de la presente convocatoria es regular la concesión de ayudas destinadas a impulsar la producción artística musical local, mediante la subvención parcial de los costes de grabación y/o edición de discos o videoclips realizados desde el 1 de diciembre de 2025 hasta el 30 de noviembre de 2026.</p>
<p>2. Onuradunak.</p>	<p>2. Personas o entidades beneficiarias.</p>
<p>Laguntza hauek jasotzeko, herriko musika taldeek baldintza hau bete beharko dute: taldekideen erdia gutxienez Arrasaten errolatuta egotea. Bakarlarrien kasuan, Arrasaten errolatuta egon beharko dute.</p>	<p>Podrán optar a estas ayudas las formaciones musicales locales que cumplan el siguiente requisito: al menos la mitad de las personas que integran la formación deberán estar empadronadas en Arrasate. En el caso de solistas, deberán estar empadronadas o empadronados en Arrasate.</p>
<p>3. Izapidetzeaz arduratzen den administrazio unitatea.</p>	<p>3. Unidad administrativa encargada de la tramitación.</p>
<p>Gazteriaren administrazio unitateak izapidetuko ditu eskaerak.</p>	<p>Las solicitudes serán tramitadas por la unidad administrativa de Juventud.</p>
<p>4. Aurrekontua.</p>	<p>4. Presupuesto.</p>
<p>Programa honen bidez deitutako dirulaguntzen zenbatekoa 5.000 € da, eta "1.0410.480.337.20.01 Maketak grabatzeko dirulaguntza" kontu sailaren kontura finantzatuko da.</p>	<p>El importe de las ayudas convocadas a través del presente programa asciende a la cantidad de 5.000 €, y será financiado con cargo a la partida presupuestaria "1.0410.480.337.20.01 Subvenciones para grabación de maquetas".</p>
<p>Ezarritako diru kopurua agortutakoan bukatutzat emango da programa, udalak propio erabaki ezean kreditua handitzea.</p>	<p>El programa se dará por concluido cuando su consignación presupuestaria se agote, a no ser que el Ayuntamiento expresamente decida aumentar dicho crédito.</p>
<p>5. Aurkeztu beharreko agiriak.</p>	<p>5. Documentación a presentar.</p>
<p>Eskaera eredu ofizialarekin batera, eskatzaileek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:</p>	<p>Junto con el modelo oficial de solicitud las personas solicitantes deberán presentar la siguiente documentación:</p>
<p>a) Taldea osatzen duten kide guztien nortasun agirien fotokopiak.</p>	<p>a) Fotocopia del DNI de todas las personas que integran el grupo.</p>
<p>Errolda datuak udalak egiaztatuko ditu zuzenean, ulertuko baita interesdunak horretarako baimena eman diola eskaera aurkezte hutsagatik.</p>	<p>Los datos de empadronamiento los comprobará directamente el Ayuntamiento, considerándose que, al presentar la solicitud de subvención, la persona interesada autoriza dicha comprobación.</p>

b) Grabazio eta/edo edizio gastuen aurrekontua.	b) Presupuesto de los gastos de grabación y/o edición
c) Oinarri-arau orokorretan xedatutakoari jarraituz, Administrazioarekiko zerga obligazioak betetzen direla egiaztatzea.	c) Acreditar, de la forma prevista en las bases generales, que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias frente a la Administración.
6. Eskaerak aurkezteko epea.	6. Plazo de presentación de las solicitudes.
Deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik 2026ko azaroaren 30era bitartean aurkeztu ahal izango dira eskaerak.	Las solicitudes podrán ser presentadas desde el día siguiente a la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa hasta el día 30 de noviembre de 2026.
7. Eskaerak baloratzeko irizpideak.	7. Criterios de valoración de las solicitudes.
Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa grabazioaren edota edizioaren kostuaren erdia izango da, baina laguntzaren gehieneko muga 700 € izango da grabazioko.	El importe de la subvención concedida será el equivalente a la mitad del coste de la grabación y/o edición, con un límite máximo de ayuda de 700 € por grabación.
Grabatutako diskoaren karatula editatzen bada, testua euskaraz azalduko da, bakarrik edo beste hizkuntza batekin edo batzuekin batera.	En los casos en que se edite una carátula del disco grabado, su texto se redactará en euskara, solo o junto con otro u otros idiomas.
Dirulaguntza jaso nahi duten bideoklipen titulua eta/edo kredituak euskaraz idatzita egon behar dute.	El título y/o créditos de los videoclips que opten a la subvención deberán estar redactados en euskara.
Talde edo bakarlari bakoitza, gehienez ere bi urtean behin aurkeztu ahal izango da laguntza-programa honetara.	Cada grupo o solista podrá tener acceso a este programa de ayudas una vez cada dos años como máximo.
Ez dira onartuko pertsonen duintasunaren aurkako eraso edo edozelako indarkeria mota sustatzen duten lanik.	No se aceptarán trabajos que atenten contra la dignidad de las personas ni los que fomenten cualquier tipo de violencia.
8. Justifikatzeko epea eta modua.	8. Plazo y forma de justificación.
Dirulaguntza emateko erabakia hartutakoan, dirulaguntza justifikatu egin beharko da grabazioari edota edizioari dagokion fakturaren gain aurkeztu beharko zaizkio Udalari:	Una vez adoptado el acuerdo de concesión de subvención, esta será justificada mediante la presentación de la factura correspondiente a la grabación y/o edición, junto con la entrega al Ayuntamiento de:
a) Musika grabazioen kasuan, diruz lagundutako grabaketaren zazpi kopia.	a) En el caso de grabaciones musicales, siete copias de la grabación subvencionada.
b) Diruz lagundutako lana bideoklipa denean ikusgai jarritako plataformaren helbidea, gehienez ere 2 hilabeteko epean, diruz lagundutako ekintza gauzatzen denetik kontaktzen hasita.	b) Dirección de la plataforma donde se ha expuesto, cuando el trabajo subvencionado sea un videoclip, en el plazo máximo de 2 meses contados a partir de la realización de la acción objeto de subvención.

9. Klausula gehigarria.	9. Cláusula adicional.
Deialdi honetan jasotzen ez diren gai guztietan Arrasateko udalaren dirulaguntzak ematea eta kudeatzea arautzen duen ordenantzan ezarritakoa izango da aplikagarria, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak garatu duen erregelamendu eta bat datozen gainerako lege arauetan ezarritakoa.	En todo lo no recogido expresamente en la presente convocatoria, se estará a lo dispuesto en la ordenanza reguladora de concesión y gestión de subvenciones del ayuntamiento de Arrasate, la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, que aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones y demás disposiciones legales concordantes.